




Antzinatik hitzekin jolasean



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ponpeia (Italia), 1925. Arkeologoeek, beste hainbat objekturen artean, inskripzio berezi bat aurkitu zuten aztarnategi ezagunean. Latinezko bost hitzez osatutako multipalindromoa da, eta Sator Karratua deritzo. Ponpeiakoa da orain arte aurkitutako alerik zaharrena (Vesubiok K.o. 79an egin zuen eztanda, eta beraz, idazkuna hori baino zaharragoa da), baina ez bakarra; Erromatar Inperio garaiko eta Erdi Aroko Sator Karratu mordoa aurkitu dituzte orain arte Europako hainbat tokitan, hormetan edo zutabeetan zizelkatuta edota dokumentuetan jasota, eta gehienak, elizetan edo inguruetan.

Sator (erein), *arepo* (esanahi ezezaguna; zenbaiten ustez, egiptoar jatorriko izen propioa), *tenet* (eutsi), *opera* (lana, zaintza) eta *rotas* (biratu) dira bost hitzak, ezkerreko eskuinera, eskuinetik ezkerreko, goitik behera eta behetik gora irakur daitezkeenak.

Bost hitzok osatzen duten esaldia honela itzuli ohi da: “Arepo ereileak gurrupilak trebezia gidatzen ditu”. Esaldiak zentzu handirik ez duenez, asko saiatu dira karratuak ezkutatzeko omen duen esanahi misteriotsua topatzen. Besteak beste, teoria esoterikoak, kabalistikoak... sortu dira, baina teoria zabalduena kristautasunarekin lotzen duena da. Esaterako, hitzak beste modu batera moztuta esaldi hau osatzen dela diote: “*Sat ora re poten et opera rotas*” edo “Egunero



M. DFISDERO

Oppede-ko (Luberon, Frantzia) Sator karratua, antzinarotik datorren idazkun misteriotsua.

otoitz eta lan egiteko nahikoa botere”. Interpretazioak muturrerago eramanez, letren ordena aldatuta, bi *paternoster*-ek osatutako gurutzea lor daiteke; baina interpretazio horrek akats bat dauka: bina “a” eta “o” sobera daudela. Baina hori ere beren alde baliatu dute jatorri kristauaren defendatzaile batzuek: “a” eta “o” letrak alfa eta omega dira alfabeto grekoan eta, beraz, bi aitagureak inguratzen, biltzen dituzten hasiera eta amaiera adierazten omen dute.

Beraz, letrak nahi ditugun ordenan jartzen baditugu eta komeni ez zaizkigunak kendu, azkenean, Sator Karratuak guk nahi duguna esatea lortuko dugu. Hala, konbinazioak eta ondorioak ia infinituak izan daitezke, eta geroz eta zailagoa izango da inskripzioak gordezten omen duen misterioa argitzea. Edo, beharbada, ez dago inolako misteriorenik eta Sator Karratuak garbi esaten duena zera da: gizakioi betidanik gustatu zai-gula hitzekin jolastea. ●



Gerran hildakoei omenaldi zaharrena

1980ko eta 1990eko hamarkadatan, arkeologoeek indusketa lanak egin zituzten Monumentu Txurian, Siria Iparraldeko Tell Banat aztarnategian dagoen 22 metroko muino artifizia, duela 4.300 urte eraikia. Orduan bildutako materiala orain ikertu dute eta inoiz aurkitu den gerran hildakoen omenezko monumenturik zaharrena izan daitekeela on-

dorioztatu dute. Gainera, Mesopotamiako hainbat testutan deskribatzen den eraikin mota berezi baten lehen adibide praktikoa ere izan daiteke; hildakoen gorpuak edo hezurak era jakin batean antolatuz egiturak osatzean zetzan eraikuntza modu hori. Dena den, monumentua ezin da bisitatu, urpean baitago 1999an Eufra-tes ibaian Tishrin presa eraiki zutenetik. ●